

13. zenbakia  
2000ko urria

U R I B E K O S T A K O A L D I Z K A R I A

# U

Nerea  
Onaindia

Baloiar ostikoka  
hamabost urte  
badaramatza ere,  
ez du etsitzeko asmorik  
azaltzen.

• bittor egurrola • kurkudi • asier amezaga • bikotxak •



IRUdia





ARGITARATZAILIA: Boluntzaria E.R.E.  
 HELBIDEA: Amesti 6, 4. solairua, 5. hellegia 48990 GETXO  
 e-mail: aldizkari@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37  
 ZUZENDARIA: Jokin Aspuru  
 ERREDAKZIOA: Fati Eskerra, Andoñi Lisoa, Raul Agirre  
 ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez  
 TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Batuen  
 INFOGRAFIA: Guillermo Almagia  
 MARRAZKILARIA: Goñi Vázquez  
 KOLABORATZAILIAK: Bitor Egurrola, Jokin de Pedro, José Ignacio Lobo, Inazio Arana, Gaizka Escudero, Unai Elorriaga, Algotzako Bernolari Eskola, Akitze Kaminaga, Xabier Pita  
 ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugaña  
 PUBLIZITATEA: Amaia Bilbao (94 491 13 37)  
 FILMAZIOA: ARGIA / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00  
 ISSN: 1576-6799  
 Osoik edo zati, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, ez da gaituztenik dago.  
 © BOLUNTZARRETA  
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta osakara elkareen TOPAGUNEko parte da

**GETXOKO UDALA**  
 Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

**TOPAGunea**  
 Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jaso du

Salsidu 5, 1. solairua 48990 Algorta

**\*oharra:**  
 ohartuko zinetenez, harpidedun guztiok ez duzue jaietako ale berezia etxean jaso. Kostuak direla eta, ezinezkoa zaigu aldizkaria egin, inprimatu eta zuoi musutruk etxera bidaltzea. Ordaintzen duten guztiok jaso dute.

gogoratu,  
 beharrezkoa da  
**ORDAINTZEA**  
 hilabetero aldizkaria  
 etxean  
 jasotzeko  
 2.000 pta./ urte  
 94 491 13 37

# Atzera gatoz irakurle!

Jaietako ale berezian ondoren (irakurri behean ezkerrean dagoen oharra\*), berriro gatoz 2000/2001 ikasturteari gogoz ekiteko prest. Ikasturte berria, liburu berriak, arropa berriak... Geuk ere aldizkariari "jantzia" aldatu nahi izan diogu eta esku artean duzuna da emaitza. Baina ez genion aldizkariari itxura bakarrik aldatu nahi, eta horregatik atal berri batzuk ere gehitu dizkiogu. Ikusgarriena segurua asko, egiten ausartu garen "Basagoiti 79" fotonobela —es-tranbotiko xamarra— izango da. Ea gustukoa duzuen! Bestalde, aldizkaria ez ezik, bestelako produktu batzuk sortzeko bideari ere hasiera eman diogu. Oraingoan eta hasteko, urrian bertan salgai egongo den disko bat ekoiztu eta argitaratu dugu. Gure lankide eta adiskide handia den Bitor Egurrolaren aspaldiko kantak bildu eta CD batean jarri nahi izan

ditugu; orduko garaietan arrakasta handia izan zuten abesti horietako batzuek. Edizio berezia eta mugatua da. Eta amaitzeko, betikoa; aldizkaria jaso eta oraindik ordaintzen ez duzuenoi, gogoratu, aurrerantzean ezin izango dizuegu UK etxera bidali.

Beste barik, ondo ibili!

**FOTONOBELA**  
**BASAGOITI 79**

**18**

**ale honetan estreinaldia**

Hauexek dituzue fitxatu ditugun "izartuak" lehenengo ataleko une goren batean. UK-k ez du bere gain hartuko fotonobela honek irakurlearengan eragin ditzakeen kalte mentalak.

## ESAERA: "Eskerrik asko, ez da gauza asko"

### Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak bost urte

Bost urte bete ditu eta, Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak erromeria mundiala antolatzen duen irailaren 29an San Nikolas plazan. Arratsaldeko seietan eman zitzaion hasiera egitaruari, umeentzat antolatutako herri kirolen parkearekin. Izertaldi ederrak bota zituzten umeek lasto altxaketan, lokotzak biltzen, tokan eta beste hainbat herri kirol eta jolasekin. Atsedenerako tarte handi barik Txan Handia magoaren emanaldia ikusteko aukera izan zuten han bildutakoek. Hauts magikoak botaz eta "Artxila Murtxila" hitz magikoen bidez, zur eta lur utzi zituen umeak... eta ez hain umeak. Jaiari amaiera emateko Etzakit taldeak umeak, gazteak eta zaharrak ere dantzan ipini zituen doinu alaiekin. Eguraldi iragarpenek kontrakoa bazioten ere, azkenean eguraldi polita egin zuen, izan ere, bistan da erabakitzen duena ere euskararen alde dagoela.

[extra]  
**jaiak**  
**2000**

Jaietako argazki liburuxka eskuratu nahi duenak aldizkarira deituz lor dezake. Ale gutxi batzuk geratzen zaizkigu.  
 400 pta.

### San Jorge eta Herensugea



# Gerra kontseiluak

"Intsumisioaren garrantzia estrategia ezbiolentean datza"

**A**sier Amezaga algortarra aspaldian da Kontzientzia Eragoz-penerako Mugimenduko (KEM-MOC) kidea, hau da, antimilitarista. Iazko abenduan gerra kontseilua egin zioten militarrek A Coruñan eta urtebeteko zigorra jaso zuen Bilboko Gobernu Militarrean beste bost lagunekin batera, inuzenteen egu-

...inuzente moztortuta sar-tzeagatik. Egun hura Kontzientzia Eragozpenaren Legearen urteurrena zen eta hori salatzeke sartu ziren hara. Esan bezala, hain ekintza xumeagatik gerra kontseilua, eta urtebeteko zigorra ezarri diote epaile militarrek.

Ez da erraza izango militarren aurrean deklaratea? Hasieran lotsatu egingo ginela pentsatzen genuen, eurak oso harro azalduko zirela, baina kea, guztiz kontrakoa izan zen: lotsatu zirenak eurak izan ziren. Epaituon artean, bata irakaslea zen, bestea informatikoa... Eurak, berriz, horrelako ekintzak epaitzea beste zereginik ez zuten militar hutsak ziren. Nahiko barregarri geratu ziren. Gero, zigorra jaso genuen eta teoriar behintzat, kartzelara joan beharko genuke seiok. Praktikan ez dakigu zertan geratuko den; prozedura ez da arrunta, gu zibilak gara eta militarrek epaitu gaituzte. Baina lehen intsumisioekin gertatu zena gertatuko da. Lehen ezin zituzten intsumisio guztiak kartzelen sartu, asko zirelako, eta

horrek oihartzun mediatico handia zuen. Baina ezin zuten jendea zigortu barik utzi; hortaz, zer egin? Bada, hautaketa bat, eta horrela batzuk kartzelara, eta beste batzuk ez.

Baina zenbat lagun zaudete egoera horretan, ba?

Gure antzeko egoeran beste 40 antimilitarista inguru daude, hau da gerra kontseilua izan dutenak edo izango dutenak. Orain, adibidez, zabalik daukagun Intsumisioa Kuarteletan kanpainari jarraitu dioten, zortzi intsumisio ditugu Madrilgo

## MUGITZEN DIRA

Alcala de Henaresko kartzela militarrean. Antimilitarista hauek soldaduzkara joan ondoren, alde egiteagatik daude preso degian.

Antimilitarismoak ez du gurean lehengo oihartzunik...

Egia da, baina guk adibidez gerra kontseilua zela eta, atxikimendu mordoia jaso ditugu: unibertsitate munduko jendearengandik, herri mugimenduetatik... Honek izugarri laguntzen du; ez duzu zeure burua extralurtar baten moduan ikusten.

Hala ere, intsumisioaren urrezko garai hura joan da. Milioiko galdera da hori. Alde batetik, ikusi behar da gizartean, oro har edo-



"Soldaduzka akabatzea dibertigarria izan zen, armada desagertaraztea itzeleko jai izango da" (Barreak)

zelako herri mugimenduetan benetan zenbat lagun mugitzen ziren eta zenbat mugitzen diren gaur egun. Guk uste dugu badela benetako mugimendu antimilitarista bat, bai hemen eta bai munduan eta intsumisioaren garai horretan ere bazela antimilitarismoari zuzenki lotuta mugimendu intsumisio indartsua. Baina bestetik, bazen soldaduzkaren aurka baino mugitzen ez zen jendea, tartean alderdi po-

litikoak, sindikatuak... une jakin hartan eurentzat intsumisioaren alde azaltzea komenigarria izan zitekeen. Baina ez zuten argi esaten soldaduzkaren aurka edo armaden aurka zeuden ala ez, ez zuten azalpen handirik ematen. Orain, soldaduzka desagertzean, gauzak bere lekura itzuli dira. Hala ere, guk, KEM-en, bagenekien lehenago edo geroago derrigorrezko soldaduzka desagertu behar zela; eta, hortaz, bage-

nekien arazo hori desagertutakoan, desmobilizazio handia gertatuko zela. Eta horrela izan da, lehen baze-goelako ia herri bakoitzean talde antimilitarista edo intsumisoren bat eta orain, berriz, ez.

Baina duela hamar urte, ia pentsaezina zen derrigorrezko soldaduzka desagertzea.

Kontua izan da armadak profesionalizatzen ari zirela eta ari direla, hori da joera nagusia herri "aurreratuetan". Horretarako epe batzuk daude, mugak, plangintza... Espainiako armada Eurapakoen aldean, oso atzeratua dago eta denbora gehiago behar du horiekin bat egiteko. Intsumisioak prozesu hori oztopatu zuen soldaduzkaren desagertzea azkartu zuelako. Gobernuak soldaduzka kendu behar izan du, hori egin ezear, gizartean armadaren aurkako jarrera zabalduko zelako. Eta orain horrela dabilta, arazoekin; jendea ez doa ejerzito espainiarera ezta ordainduta ere! Intsumisioa izan ez balitz be, profesionalizazioa gertatuko zen.

Ez zarete utopiko xamarrak?

Betiko kontua da. Hara hor utopiko horiek, ingenuoak...! Era ezkorrean esaten da. Baina planteamendu hori jendea mugitzen ez dadin da. Nik badakit non bizi naizen, errealitateaz egutzen dut eta badakit ez dudala gauzak egun batetik bestera aldatzerik, baina hori ez nik ez inork. Baina guk badaukagu gaitasunik eta askatasunik, zeren aurka gauden esateko, zer ez zaigun gustatzen adierazteko, eta hori egiten dugu, beti bide ezbiolenteko edo baktetsuak erabiliaz, azken finean intsumisioaren garrantzia estrategia ezbiolentean datza. Garbi gertatu da bide hau, biolentzia-

**HARREMANETA RAKO**  
 Getxo Antimilitarista GA  
 www.euskaltel.es/ga  
 KEM/MOC  
 betxea@euskalnet.net



## UKIOnikak

# Supermerkatua-

—Unai Elorriaga—

STIRALA, ARRATSALDEKO 17:56 / Betiko izkinan geratu gara, supermerkatu aurrean. Seietan geratu gara, supermerkatua zuzen sartzeko. Errazagoa da horrela, ze plazan geratzen bagara, nahiko urrun egongo ginateke supermerkatutik; eta plaza igandeetarako da, lasai egoteko eta elkarri kontuak esateko. Baina gaur ostirala da eta bihar larunbata eta hobeto supermerkatuaren ate-atean geratzea, errazagoa delako horrela.

18:07 / Eta, egia esan, gusturago nengoke ni plazan, elkarri kontuak esaten eta arnasa hartzen edo etxean, eta etxean pelikula bat edo liburu bat. Baina hemen nago eta aukeratu behar dut zer erosi: vodka botila bat ala hiru zerbeza, litrokoak. Izan ere, zer egin daiteke hamabost urterekin ostiral batean. Botazioa egin dugu. Nik vodkari eman diot botoa baina zerbezak irabazi du; oso demokratikoki, hori bai, enpate egon den arren.

18:17 / Eta nik postura egingo nuke nire lagunenen %78k nahiago dutela plaza, elkarri kontuak esateko, zerbeza edateko beharizanik gabe. Edo nahiago dutela etxea eta pelikula bat edo liburu bat. Baina azkenean zerbezak erosi ditugu eta neskak ez digu karneta eskatu, falsifikatutako hiru dauzkagun arren.

18:28 / Gero parkera joan gara edaten. Iluna da parkea, eta hori inportantea dela uste dugu. Orduan botilak zabaltzen hasi gara. Zeremonia handiz, hori bai. Eta kontua da lehen botilatik ez dela zerbeza atera. Edo, hobeto esanda, zerbezarekin batera sugandila bat atera da, bizirik. Nazka apur bat eman digu eta ernegatu egin gara (apur bat hori ere) eta supermerkatuari salaketa ipiniko diogula erabaki dugu (ez oso handia).

18:35 / Sugandila kutxa batean sartu eta bigarren botila zabaldu dugu. Harrigarriena da bigarren botilatik ere sugandila bat atera dela, bestea bezain bizirik, bestea bezain sugandila.

Hirugarren botilatik hirugarren sugandila atera da. Ezin izan ditugu, beraz, botilak edan. Norbaitek esango du aspertu egin garela orduan. Ezta hurrik ere: sugandila-lasterketak egiten eman dugu arratsalde osoa. Eta gustura joan gara iluntzean etxera, eta barreka. Eta ohera ere barreka sartzen ari naiz, nire sugandilari Michael Johnson jarri diodalako izena. m

## Manuel Cajigas

“Nabarra” untziko makineta buru

NOR  
ZEN?



Euskaldunontzat hain ondorio latzak ekarri zituen 36ko Espainiako gerran kokatuko gara. Euzko Jaurilaritzaren itsas armada ez zen apenas ezer. Nabarra izeneko, gerrarako bi kanoiz hornitutako makailu arrantzuntzia zen. 1937an, antzeko ezaugarriak zituzten beste bi arrantzuntziarekin batera, Euzko Jaurilaritzako Galdames posta-untziaren eskolta lanetan ari zen Nabarra. Bat-batean faszisten Canarias izeneko gerra-untzi erraldoia azaldu zen han; Galdames untzia laino artean ezkutatu zen. Canarias Nabarra segika zebilen, hondoratu ezinik, katua saguaren atzetik bezala. Gogor eutsi zioten erasoari itsasgizon euskaldunek untzia ia hondoratu zen arte. Manuel Cajigas algortarra (Alango auzokoa) Nabarra untziko makineta burua zen eta kontatzen

da untziaren sabeletik, bere kideak animatzearen “Gora Euskadi Askatua” oihukatzen zuela ozeki eta etengabe Manuelek. Nabarraren tripulazioa 52 kideak osatzen zuten, bertan 33 hil ziren eta gainerakoak preso hartu zituzten faszistek. Manuel hantxe hil zen, 58 urte zituen.

## Kurtziomendi

Joxe Miel Barandiaran, ikertzaile ospetsua, Uribe Kosta arakatzen ibili zen 1959an eta duela 40.000 urteko aztarnategi garrantzitsua topatu zuen



Sopelan azaldu zen Barandiaran ikerketa bat egiteko asmoarekin duela 40 urte. Kurtzia ingurua arakatu nahi zuen, hau da, Plentziako itsasadarretik Galeako puntarainoko lurak. Arriatara, Atxabiribil eta Meñakotz hondartzak, eta Azkorri, Kukululu eta Kurtziomendi mendiak aztertu zituen. Barrikan bertan dagoen Kurtziomendi, sukarrria aurkitu zuen, antzinako gizonak lan tresnak egiteko behar-beharrezkoa zuten lehengaita eta zulaketa lanak egin ondoren, giza industria baten aztarnak topatu zituen. Musteriense garaian (duela 40.000 urte) kokatu zituen Barandiaranek aztarna hauek. Antza garai hartako gizakiek, sukarrria bistan zegoela ikusita, euren tresnak egiteko lantegi antzeko bat zeukaten bertan. Garai hartako hainbat esku-ko aizkorak, karraskatzaileak... aurkitu zituen Barandiaranek Uribe Kostan.

BAZTERRAK

ERAIKINAK



## Otxandategi dorrea

Dorretxeek berebiziko garrantzia izan zuten Erdi Aroan Euskal Herrian. Antza, etxebizitza mota bi zuden garai hartan: idazkietan “casas llanas” izenarekin agertzen direnak (baserrien antzekoak seguru asko) eta dorretxeak. Hauetan jauntxoak bizi ziren. Datuen arabera, XIII. mendean eraikitzen hasi ziren dorretxe hauek, XIV.ean izan zuten euren une gorena eta XV. mendean gainbehera etorri ziren, garai hartako erregeak, Enrique IV-ak, Bizkaiko hainbat dorretxe “mozteko” agindua eman zuen eta. Berangon, antza, bost dorretxe eraiki ziren: Arana, Arriubiaga, Basagoiti, Berango-Uriarte eta Otxandategi, 1275. urtean eraiki zena (argazkikoa). Gaur egun bik baino ez dute irautzen, Basagoitikoak eta Otxandategiak.


\* Otxandategi dorretxea Berango-Gorrondo-Azkorri errepidearen ondoan dago.

LEHEN



Iraganez doa denbora\* beti

## PLENTZIako ZUBIA



ORAIN

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Argazkiak: Mikel Martinez

## EZ GALDU

agenda urria

ERAKUSKETA ederra egongo da Erromoko erakustaretoan hilaren 31ra arte. Izena: “Bostekoa 00”. Izen handiko artisten lanak ikusi ahal izango dira: Vicente Larrea, Gabriel Ramos Uranga, Jose Zugasti eta Jose Luis Zumeta. Orduetara, lanean 11.00/13.00. 18.00/21.00. Zapatuetan 11.00/13.00. Bestetik, Algortako Kultur Etxean EKUADOR-eko proiektuak erakusketa ikusgai egongo da hilaren 28ra arte.


ANTZERKI JARDUNALDIAK pres-tatu ditu aurten berriro ere Kultur Etxeak urriaren zehar. Hainbat antzezlan ikusteko aukera egongo da bai Getxo Antzokian, baita Algortako Metro Plazan eta Areetan Udala Musika Eskolan. Euskaraz ere badago zer ikusi.

ZINEMARI dagokionez, Haur Zinea, Zinekluba eta Cinema Paradiso ikasturte berriari ekingo diote urriaren. Areetako Gran Cimenan “Las normas de la casa de la sidra” urr 26 /20.00. Getxo Antzokian “Corre, Lola, corre” urr 27 / 22.00.

ASTE KORALA urriaren amaieran, atzerriko zein bertako hainbat abesbatzak

kantatuko dute gurean.

Vicente Larrea eskultore getxotarraren lanak Erromon



## EREAGA

Bidaiak  
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88  
GETXO



basurto  
algorta S.L.  
altzariak

T: 4607162 - 4604244  
telletxe 15, algorta

## GAVRKO



GIZONENTZA-  
KO MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T: 4607084

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA

## Egun-kariak

prentsa eta  
aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
T: 94 491 27 34



## FLASHback



# Rugby Taldea

Kantarepe koadrilako Txomin Gerezuga "Pitxon", Ramon Isasi "Pepilo" eta Jon Lazaro "El Brujo" izan ziren Getxo Rugby Taldearen bultzatzaileak. Orain, urrian, taldeak 25 urte bete ditu. Goiko argazkian daude hain zuzen ere, lehen talde hura osatu zuten lagunak. Euren lehenengo partidua zen, Barakaldoren aurka jokatu zuten eta baita irabazi ere. Partidu honetan, el Brujok ez zuen jokatzetik izan, Melillan zen-eta soldaduzka egiten; gaur egun GRTko lehendakaria den Tintxuk, belauna apurtu zuen.

Bittor Egurrola

### AZALTZEN DIRENAK

Zutunik: Ignacio Gonzalez (Pinki), Agustín Martínez (Tintxu), Juanjo Ansoleaga, Xabier Moagez (Kaxxuxu), Txomin Gezuraga (Pitxon), Fernando Fdez. Monje, Javier Rivero (Karrulo), Vicente Blanc (Kuko), Angel Garcia, Pepe Marina (entrenatzailea).

Makurturik: Jose Escondrillas (Janet), A. Antonio Villanueva (Herribarri), Eduardo Arrieta (Ludu), Iñaki Perez, Eduardo Rodríguez, Ramon Isasi (Pepilo), Daniel Galarreta.



# MUNGIA

## oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076  
ALGORTA



# TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

Bartzelona

Atzera Aurrera Etxera Jaso Irudiak Irteki Inprimatu Bilatu Stop

Helbidea: aldizkaria@euskalnet.net

Jendea Interesgarria Bilatu Internet e-mail Software

Banesa Moreno, 21 urte ditu, algotarra da >>>

Duela hilabate bat Bartzelonan bizi da >>>

Sagardotegi batean dabil lanean >>>

## "Bartzelona zoragarria da" <<<

ZERGATIK BARTZELONA. Estatuko hiririk interesgarriena iruditzen zait, Europara begira bizi dena. Zortea eduki dut: Colon estatuaren aurrean bizi naiz, hiriaren erdian, bistak paregabeak dira; nire etxe ondoan Manu Chao abeslari ezagunaren taberna dago, sarritan ustekabeko kontzertuak egiten ditu bertan, inor abisatu barik, hara joaten naiz, oso giro ona dago... Egia esan, etxean bezala sentitzen naiz hemen.

SAGARDOTEGI BATEAN LANEAN. Bai, Bartzelonan badaude dozena erditik gora, hau da, Bilbon baino gehiago. Atzerritarren artean arrakasta handia dute, badakizu, pintxoak, sagardo kupelak, txakolina, txuleta... Ez dira Euskal Herriko sagardotegiak bezalakoak baina antza badute. Jende pilo etortzen da, kanpotarrak, bertakoak eta euskaldun asko ere bai. Negozio itzela dago hemen.

TOPIKOA EGIA OTE? Bai, oro har kataluniarrak oso zekenak dira. Tabernan eskatzerakoan, adibidez, oso normala izaten da horrelako galdera bat: zer da merkeagoa txakolina ala sagardoa? Horren arabera eskatzen dute. Beste adibide bat: badatoz hamar lagun gurera afaltzera, ordaintzeko orduan, hamar kreditu txartel emango dizkizute, bakoitzak berea besterik ez du ordainduko. Zentzu horretan, kutreak dira. Hala ere, nire giroan euskaldunak gara, eta euskaldun asko etortzen da hona. Algortan baino euskara gehiago egiten dut hemen.

BARTZELONA HIRIA. Zoragarria, benetan. Oso, oso polita. Niri Londres ekartzen dit gogora, baina gehiago gustatzen zait hau. Eguraldia gainera oso ona da. Jende asko ikusten da, kolore askotakoa, oso hiri kosmopolita da, bizia. Niri izugarri gustatzen zait Bartzelona.

ZER EGIN. Adibidez, igandeetan Ciudadelan oso giro ona egoten da, jendea kalean musika jotzen.. ikusgarria da. Rambletatik paseatzea ere gozada bat da. Auzo Gotikoa ederra da, ikustekoa. Eta beste hamaika gauza. Egia esan duela gutxi etorri naiz eta oraindik hiria deskubritzen ari naiz.

TXARRENA. Skin-head-ak. Asko ikusten dira, beldurgarriak dira. Eta ikusten dituzunean, euren inguruan oso rolo txarra sortzen da beti, giroan tentsioa, izua arnasten da...

KATALANA. Asko entzuten da, orain ikasteko izena emana dut. Urrian bertan hasiko dira klaseak. Baina, honezkerok hitz batzuk ikasi ditut, "tako" guztiak badakizkit (barreak). Badaukat, lankide kataluniar bat, mutil euskaldun batekin dabilena. Berak euskaraz galdetzen dizkit gauzak eta nik euskaraz erantzuten diot; truke kulturala.>>

Oharra:  
Atzerrian bizi den gure inguruko inor ezagutzen baduzu eta atal honetan atera daitekeela uste baduzu, jarri gurekin harremanetan: aldizkaria@euskalnet.net

Importaziozko zerbezarik onenak

Terraza zabala

Tel. 946 76 11 28  
URDULIZ

basarte'na

## Barrukoa Taberna

Telletxe 5

ALGORTA

## SANTANA KIOSKOA

Prensa eta aldizkariak

**Santana kalea, Amaiarekin bat**

BEROGAILU ETA ITUR-

T: 430 53

**HIRURAK**

Sarikobaso 15      48990

## GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent-

Prensa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxerriak

Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13 GETXO	Telletxe 13 T: 460 02 88 ALGORTA
--	--

# Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO



# BITTOR

## PROTES- TA KAN-

60ko hamarkada, diktadura, errepresioa... baina Francoren kontrako abotsak gero eta ozenago entzuten ziren. Diktaduraren aurkako giro hartan sortu zen euskal kanta berria, protesta kantariak azaldu ziren.




### BERBETan

Euskal abesti berria” deitu izan zenaren aitzindarietako bat izan zen Bittor Egurrola Bizkaian. Aspaldian gure artean bizi den Gernikako seme honek –beti euskarari lotua– ibilbide musikal laburra baina bizia egin zuen 60ko hamarkadaren bukaeran. Garai hartan arrakastat handia izan zuten disko bi kaleratu zituen. Duela 30 urte utzi zion kantatzeari irakaskuntzaren bidetari ekiteko. Orain aldizkari honek, UK-k, garai hartako bere kantak CD batean bildu ditu. Diskoa urriaren bukaeran salgai egongo da.

Bittor, karrera musikala 60ko hamarkadaren bukaeran egin zenuen, kontaguzuz zelakoa zen giro orduan.

Niretzat hamarkada hori oso garrantzitsua izan da gure historian, ahaztezina. Zoriagarria izan zen Euskal Herriarentzat. Jakina, diktadurapean bizi ginen eta errepresioa handia zen. Nik kontrolak gogoratzen ditut bereziki; beldurgarriak ziren, nonahi eta noiznahi zeuden, gauz zein egunez... hori etengabe ematen zen. Une mingarriak izan ziren jende askorentzat baina nire uestez azkenean positiboa izan zen. Halako berpizkunde bat eman zen hemen, kontzientzia hartze bat. Francoren aurkako erresistentzia mugimenduak sortu ziren eta hainbat proiektu abian jarri. Orduan sortu ziren Euskal Herriko ikastola gehienak. Iparraldeko Seaska 1969an sortu zen. Ikastolak ez ziren gaur egun ezagutzen ditugun modukoak, etxe partikularrak ziren, Elizaren ingurukoak beste batzuk. Legez kanpokoak ziren asko eta legalizazioa zen erronka nagusia orduan. Bestalde, urtebete lehenago sortua,

ETAk bere lehengo ekintza armatua burutu zuen 60an. Frankismoa bizibizirik zegoen baina lehen esan dudan moduan, gartetia esnatzen eta antolatzen hasi zen diktaduraren aurka. Hamarkada honen bukaeran ondorioak izan zituen gertakari politiko oso garrantzitsua eman zen: Burgoseko Prozesua. Sei laguni heriotza zigorra ezarri zieten frankistek. Oihartzun handia izan zuen gertakari honek Europa osoan. Europa guztia heriotza zigor hauen kontra azaldu zen eta kanpo presio handia egon zen. Nik ueste dut ez zituztela horregatik garbitu. Espainiako gobernua oso ahulduta atera zen eta nolabait esateko, erregimenaren gainbera somatzen hasia zen. Gainera Euskal Herriaren izena kanpora atera zen, aukerak egon ziren gure arazoak azaltzeko. Gogoratzen naiz Inglaterrra jon nintzela eta han Andaluziako neska batek zera esan zidan, nongoa ote nintzen galdetuz gero, ez esateko “I am spanih”, erantzuteko “I am basque”. Burgoseko Prozesuaren ondoren oso begi onez ikusten gintuzten



Bittor Egurrola 1969 aldera Areetan eskaini zuen kantaldi batean

Europan.

B a i n a h e m e n t x e , komunikabideek zer zioten?

“El Correo” eta “La Gaceta del Norte” baino ez zeuden, eta beti bezala, erregimenaren aldekoak ziren. Zentsura zen nagusi eta euskal arazorik ez zegoen eurentzat. Azaltzen ziren euskal gai bakarra folklorea izaten zen eta hori baino, folklorismoa esango nuke nik. Guk Radio Paris entzuten genuen gauero. 11tatik aurrera. Hemen esan dudanez, zentsura itzela zegoen eta sarritan Radio Paris entzun behar hemen gertatzen ari zenaren berri izateko. Ilusioz genbiltzanok gogoz entzuten genuen, kezkarik ez zutenak jakina, orduko telediariekin edo partearekin, konformatuko ziren. Radio Pirenaica ere bazegoen

hori komunisten zen, baina hori ez nuen gehiegi entzuten. Eta ahaztu zait, Radio Euskadi entzun zitekeen.

Hamarkada horretan sortu zen euskal kanta berria deitu zena...

Bai. Euskal kanta berria, eta protesta kantariak... “Ez dok amairu” taldea izan zen garrantzitsua: Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo, Xabier Lete... izan ziren taldeko partaideak. 1965 aldera atera ziren plazara eta Euskal Herri osoan arrakasta handia lortu zuten. Edozein tokitara joanda, frontoi batera zein zinema batera, leporaino betetzen zen beti. Estilo berria ekarri zuten eta frankismoak eragiten zizkigun arazoak kontatzen zituzten abestiak egiten zituzten. Baina niretzat aitzindaria Michel Labegeri izan zen,

1961 aldera abesten hasi zen eta nik “Ez dok amairu” baino lehenago entzuten nituen bere kantak. Nire beste erreferentzia bat Raimon kataluniarra izan zen. Niretzat mundiala

“Garai hartan banuen gauza batzuk esateko gogo bizia”

zen, indar itzela zeukan abesten zuenean. “Al vent” diskoa 1962an kaleratu zuen, ikaragarria izan zen guretzat.

Beno, kontaguzuz, zer dela-eta hasi zinen kantatzen?

Ni Derioko Apaiztegiari ari nintzen ikasten eta han



Edukia zela-eta zentsura frankistak debekatutako "Umezurtza" kanta, urriaren bukaeran argia ikusiko duen diskorako grabatu du Bittorrek.



Goian, Bittor bere bigarren diskorako argazki batean. Behean, duela 30 urteko prentsa titular batzuk


**Víctor Egurrola, primero del "HIT PARADE" vasco**

**BITTOR EGURROLA**  
HE DECIDIDO NO ACTUAR MAS DE 2 o 3 VECES POR MES, SE NECESITA TIEMPO PARA CREAR

**BITTOR EGURROLA**  
**EL ADIOS DE UN CANTANTE**  
★ Ahora quiere dedicarse a la presentación de festivales

**EL CANTANTE EGURROLA**  
**DICE ADIOS A LA GUITARRA**

Bere diskoak



**BITTOR EGURROLA**  
EUSKALTZALE NEKAEZINA

Germikan jaio zen, aspaldian bizi da Algortan.

Derioko Apaiztegiaren egin zituen ikasketak eta gero Soziologia ikasten hasi Desutuko Unibertsitatean.

1968ko maiatzaren kantatzen hasi zen, lehenengo emanaldia Errigoitin eman zuen.

1968 bere lehen diskoa plazaratu zuen eta 1969an bigarrena. Arrakasta handia izan zuten biak.

1970ean soldaduzkatik bueltan musika utzi egin zuen, azkenekoz Zalbidian abestu zuen.

Ondoren kantalditan aurkezpen lanak eginen hasi zen.

Musika baztertuta, Deustuko ikastolan hasi zen lanean.

Ondoren Algortako Ikastolan 15 urte eman zituen.

Gaur euskara irakaslea da Getxoko institutu batean.

Besteak beste, Los Guaitos taldearentzako eta Algortako Biotz Alai Abesbatzarentzako letrak idatzi zituen.

Egunkaria batzordean be lanean ibili zen eta aldiakari honetako kolaboratzaile da bere sorreratik...

ngoela, Michel Lagaberreren kanta entzun nintzen gitarra baten laguntzaz gauza asko esan zitezkeela. Lapurtar honek, Michel-ek, disko bi ateratu zituen eta arrakasta handia izan zuten. Kanta politikoa ziren (Gu gara Euskadiko gaztedi berria...) eta afarrietan eta lagun artean abesten genituen guk. Raimonen kanta be abesten genituen. Nik, garai hartan, banuen gauza batzuk esateko gogo bizia. "Herri gaztedi" izeneko taldeko kidea nintzen garai hartan. Mogimendu sozial antzeko bat zen, orduko abade progreak zeuden bertan: Julen Kaltzada, Alberto Gabika... Talde kristau abertzalea zen. Jaialdiak antolatzen zituzten, kultur mailan lan egiten zuten, auto-kritika landu... Bada, talde hartako bileretan abesten nuen lagunekin batera. Hasieran musika edo kanta ezagunei nire euskarazko letrak jartzen hasi nintzen. Gazte euskaltzale, konprometitu eta ekintzaile haien gustatzen zitzaizkien nire kantatzeko modua eta aurrera. Asko animatu ninduten eta horrela, gehiegi pentsatu barik, eta lau akorde jakinda, hasi nintzen jende aurrean kantatzen.

Zelan, noiz izan zen hori?

Errigoitiko jai antolatzaile bat ezagutzen nuen eta baten batek esan zion neuk abesten nuela. Nirekin harremanetan jarri zen eta animatu nintzen. Kamioi baten atzeko partean, erremolkean abestu nuen Argoitia nebarrekin, 68ko maiatza zen eta nik 24 urte nituen. Lau kanta baino ez nituen eta horietatik abestu nituen. Handik hamabost egunetara beste leku batekin deitu zidaten eta gero dena jarrain etorri zen.

Nolakoak izaten ziren garai hartako kantaldiak?

Gaur egunekoekin ez zuten zer ikusirik. Orduan kantaldietan, bospasei

kantari elkartzen ziren eta bakoitzak, laupabost kanta abesten zituen; abeslari bakoitzak kontzertuak beranduago hasi ziren. Jendea joaten zen, batez ere, nik hala uste dut, ez ondo pasatzeko, gaur egun ulertzen dugun moduan, baikik eta barruan zuen zer hori hasetzeko, mezuak entzuteko. Jakina, zentsura zegoen eta guk ezin genuen nahi genuena abestu baina bagenituen gure tranpatxoak. Kantaldiak baino lehen abestuko ziren kanten letrak Informacion y turismora bidali behar genituen. Zentsura pasatzeko kanten oso itzulpen bigunak egin genituen.. Kaiola, usoa eta horrelako metafora asko erabiltzen genituen abestietan.... Gogoratzen dut 1969an Ondarrura hiru lau kantari joan ginela han abestera. Bakoitzari kanta bana abesteko baimena baino ez zituzten eman agintarietara. Zer egin genuen? Ba, bakoitzak kanta zezakeen kanta bakar hura, behin eta berriro abestu; oso polita izan zen.

Lehen aipatu dugu "Ez dok amairu" taldea, gipuzkoarrez osatua zegoena. Zuek hemen Bizkaian be talde bat osatzeko ahalegina egin zenuten.

Bai, Herriko izena izan zuen. Bizkaian, 68an Ondarruko Argoitia nebarrebak bazebiltzan kantatzen, Maite Idirin be. Orduan gure artean, Ez dok hamairu antzeko talde bat osatzea posible ote zen planteatu genuen. Eta egin, egin genuen horrelako emanaldi bat; lehenago eta azkena izan zen. Bilboko Ayala antzokia izan zen. Zintzoak, Jose Mari Olanga, Muniategi, Maite Idirin... egon ginen. Talde bezala lanean aritza eta profesionalizazioa jo, ziren gure asmoak. Argi ikusten genuen musika gehiago landu behar genuela, ez zela nahiko mezu bat botatzea. Amateurismoa utzi nahi genuten zer ikusirik. Orduan kantaldietan, bospasei

zitekelako. Taldearen motorra, eragilea Maite Idirin zen baina arrazoi politikoenkatik ospa egin behar izan zuen handik eta gutxira eta bertan behera geratu zen taldea.

Gaia aldatu Bittor, disko bi grabatu zenituen eta oso harrera ona izan zuten, ezta?.

Bai. Lehengoa 68an grabatu nuen Xabier Gereñok proposatuta. Hemen ez zegoen grabazio estudioirik

**"Lau akorde jakinda hasi nintzen jende aurrean kantatzen"**

eta Madrilera joan nintzen. Nire herriko, Gernikako Naikari taldeak lagundu zidan. Lau kanta grabatu genituen: Nire eskaria, Geroa, Bake usoa eta Unibertsalak. Beste kanta bat be grabatu behar nuen, Umezurtza, baina ez zuen zentsura pasatu.

Oso ondo saldu zen, Nire eskaria abestia "Hit parade vasco" esaten zitzaion zerrenda hartan, lehenengo izan zen urtebetez.


Bai, baina merkatu hura oso txikia zen eta oso disko gutxi argitaratzen zen gurean. Pentsa ezazu, 2.000 kopia saldu ziren. Eta honen harira beste gauza bat esan nahi dut. Kanta horretan, "Nire eskaria"n, diskoan gallo bat dago, Euskal Herriko diskogintzan agertu den gallo bakarra izango da seguru asko (barreak). Kontua da, Madrilen estudioan geundela, grabazioa entzun ostean ohartu nintzela. Hango teknikariak gallo nabarmen hura tronpetara edo halako batekin estaliko zuela esan zidan, lasai egoteko, berak konponduko zuela. Eta tira, gu pozik, lehenengo diskoa grabatua genuen. Madrilen bertan,

oraindino han geundela nik katxondeoan, gallo hura Naikariko lagunekin botatzen nuen Madrilen edozein tokitan: tokaaaa!, eta barre egiten genuen. Etxera etorri ginen, Gernikara eta handik eta gutxira diskoa bidali ziguten. Hura sorpresa: diskoan galloa berdin berdin azaldu zen: tokaaaa! Baina historia ez da hor amaitzen. Orain, 30 urte ondoren, zuok, UKkoek argitaratu duzuen nire kanten bilduma horretan, gallo hori berdin berdin azaltzen da (barreak). Zer eginik ez dagonez, ba, umorez hartu behar da kontua, eta behintzat gallito hori entzuteko bada ere, merezi du diskoa erosteko (barreak).

Bigarren diskoa asko entzun zen eta zerrendetan "Gernikako arbola" kanta puntan ibili zen. Diskoak hiru kanta baino ez zituen, zuk aipatu duzuna, "24 urte" eta "Andereño". 1.500 ale saldu ziren baina nik disko bakoitzeko hogereko bat jasotzen nuen; diskoak 120 pezetatan saltzen ziren.

Euskal Herriko herri askotan abestu zenuen, eta hemendik kanpo?

Leku bitan baino ez. Zaragozan hango ikasleak gonbidatuta eta Parisiko Euskal Etxean. Parisera Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo, Mikel Laboa eta laurok joan ginen 1969an hango ikasle euskaldunak gonbidatuta unibertsitatean abesteko asmoarekin. Aurreko urtean, "68ko maiatza" deitu zen hura gertatua zen eta giroa nahasia zen artean. Egan ziguten kantaldia eginez gero, ez dakit nork, edozein fakziok, hura aprobetxatuko zuela euren onurarako, edo antzeko zeezer. Kontua da azkenean hango Euskal Etxean kantatu genuela; entzuleen artean Leizaola Lehendakaria zegoen. Bidaia hartan Raimon zuzenean ikusteko aukera izan nuen. Kasualitatez berare-



30 urte igaro ondoren berriro ere sartu da Bittor estudioan kanta bat grabatzeko

**"Zoritxarrez kantatzen nituen abestien gaiek badute gaurkotasunik: bakea, unibertsaltasuna..."**

kin egin genuen topo Parisen eta Lertxundiren laguna zenez egun haietan Olinpian egin behar zuen kantaldirako sarrerak oparitu zizkigun. Eta Parisekoarekin amaitzeko, gogoratzen dut elkarrizketa bat egin zigutela Radio Parisen hara joan ginen abeslariok. Politika izan zen, hurrengo urtean, 70eko Gabonetan, Burgoseko Prozesuan tartean zela, elkarrizketa hura berriro ere emititu zutelako.

Zure kanten eduki erreparatu diet, eta nahiz eta duela 30 urte idatziak izan

oso aktualak iruditu zaizkit.

Ba zoritxarrez arrazoi duzu. Kantatzen nituen abestien gaiek badute gaurkotasunik horrenbeste urte pasatu ondoren. Adibidez, Unibertsalak abestian, sasi-unibertsaltasuna salatzen nuen. Gaur egun be, zenbaitek unibertsalak izatea eskatzen digute, hau da, gaztelera erabiltzea, Espainiako historia ikastea... kasualitatea izango da baina unibertsaltasuna eskatzen digutenean euskaldunok beti galtzaile, gureari uko egin behar diogula

eskatzen digutela sustatzen dut nik. Herrien Europa eskatzen nuen nik kanta hartan eta horrelarik ez dago, estatu ahaltsuenera politika ekonomikoa baino ez dago. Bake usoa kantan, benetako bakea aldarrikatzen nuen nik gure herriarentzat eta ez gertatzen zen moduan bakearen aitzakiarekin gure berezko eskubideak zapaltzea, pertsononak, hiztunonak... Gaur egun zoritxarrez berdin segitzen dute. Sasi-bake horren ize-nean gure abertzaletasuna baztertzeko eskatzen digute



# BITTOR EGURROLA, KANTARI BAT



Gernika aldean birritan. Zeberion ere bai.  
 —Bizkaitik ez al duzu irten?  
 —Bai, behin; Gipuzkoan Ataundik sartu naiz, asko ez dela izan nintzan han-eta.  
 —Eta, guztira, zenbat aktuaizido edo ekitaldi egin dituzu?  
 —20-tik gora.  
 —Ta ibili zeran herri hoietan ze giro somatu duzu?  
 —Herriaren aldetik oso giro ona dago, zai daukagu jendea. Ba liteke herriak euskeraz kantatzen dugulako onartzea, ta ez ondo abesten dugulako.  
 —Kantutik kanpora zer egin piz duzu?  
 —Deustun ari naiz ikasten. «Ciencias sociales»-ko lehenengo urtea, alegia.  
 —Ezagun da zure abeskeran, bai, «ciencias sociales» ikasten zaudela, han ikasitako problema hoiel dionua ipini egiten baldiezu. Hitzaren alderetik hori da zure kantua. ene ustez.  
 —Ba liteke.  
 —Kantakerakin gaudenez gero, esaiguzu ea zer eman nahi ote zenuken aditzera zuk.  
 —Nere hitzak, gogorrak dira. Baina gogortasun horren barruan zenbait pondu aukeratu dut, kapitalismoa, gizon euskalduna diralarik, beharbada, garrantzi handienerakoak.  
 —Horregatik hasi ote zinan kantatzen?  
 —Bai. Ba nuen gogoan barruan nire gauza batzuk azaltzeko. Horarako kitarra instrumentu egokia ikusten nuen. Ta Labergeri entzun nionean, ta ostantzean ere bai, animatu egin nintzan, ta kitarra tresna egokia iruditu zitzaizkidan mandatu bat emateko, norberaren sendimentuak agertzeko. Naizta txistua ta besteak Euskal Herrikoak izan. Beraz, bidetzat hartu nuen kitarra.  
 —Diozunez, kitarra bide bat besterik ez da herriari eman nahi dion

zun mensaje hori gauzatzeko. Ikus dezagun, orduan, zure iritzian, doinuak inportantzirik baduen.  
 —Ba dakit batzuk uste dutela euskaldunak letrari inportantzi osoa ematen goazela, musikaren kaltean. Ba liteke. Orain nik, gaurko gure egoeran, ez nioke emango letrari inportantzi gehiago, baina musikari ematen besteari baino gehiago.  
 —Ta zure mandatu hori euskal Herrian adierazteko, zenbat kantu darabilzikizu?  
 —Sei. Ta gehien-gehien, hauek: «Geroa», «Umezurtza», «Gernikako Arbola», «Nire eskaria».  
 —Eta ene ustez, nere «estiloa» ta jorkabidea ulertzeko beharrezko da azkenengo honen hasierako bi estrofa hauek ezagutzea:  
 «Ni enaz artista  
 Ni enaz gitarrista  
 Ni naz errotarra  
 zuzag alkarrizketan asteko  
 gitarra bidetzat  
 artun dabena...»  
 «Ez etorri nigana arte-eske»  
 ez etorri nigana berba politen eske.  
 nire gitarra ez da nire gitarra  
 nire gitarra da:  
 nire erriaren bizia  
 nire erriaren ritmoa».  
 —Argitaratu ote duzu diskoak?  
 —Ateratzen ari dira Cinsakoak. Bost kantu ditut zensurara baldiak.  
 —Lehentxeago, zure «estiloa» aitatu duzu. Zernolako da bera?  
 —Ez dakit. Neuk, neuretara, ikasia da. Kritikari batek juzga dezaidala.  
 —Musika hori nola egin oi duzu?  
 —Jarten naiz hortara, ta eginaz-eginaz gogoan ta buruan geratzen zaidana, hura da ona hura aukeratu dut. Askotan hiru ritmo ere aldatu ditut kantu berean.  
 —Zer gura zenuke izan euskal



doinuaren barrutian, egilea, interpretea, edo zer?  
 —Ez dakit, hasieran nago. Geroak esango du.  
 —Epilari ona da, izan ere, geroa. Harek neurtu oi ditu balioak. Zure alde atera dedila epilari hori. Bittor.  
 JOAN MARI TORREALDAY

Kantari berri bat gure aurrean. Jokabide konkretu batekin dator, beretasun bat ba du estiloan, zerbait ezagutarazi nahi digu. Herriari begiratzen dio.  
 Gernikakoa da. «erre behar dan» Gernika hortan jaioa, berak difoanenez.  
 —Zure izena, lehenago aldiz-edo, asko ez dela entzun nuen. Sari bat eman zizuela uste dut.  
 —Bigarren saria hain zuzen, bai-

na oso pozik nago herriaren botoa zelako. Horrek pozitu nindun. Bilbaon izan zen.  
 —Denbora asko al da kantatzen zabiltzala?  
 —Ez, askorik ez. Bost hilabete. Oraindik hasi berria naiz.  
 —Ibilaldi asko egin al dituzu?  
 —Batzuk bai. Lehenengo aldiz Olabarrin, Bizkaiko herri txiki baten abestu nuen, gero Yurren. Durango aldean lau aldiz izan naiz.

Dokumentoa: 1968an Bittorri Joan Mari Torrealdaik Zeruko Argia aldizkarian egindako elkarrizketa.

demokratek. Gu antza, gure herria eta kultura defenditzeagatik antidemokratik, nazi, fundamentalistak gara. Demokrazia baino lo-krazia nahi dute.  
 Baina dena ez da txarrrako. Beste kanta batzuetan adierazitako gauza batzuk, zorionez, bete dira.

Adibidez Andereño kantan hauen lana goraiatzen nuen eta gaur egun ikastolak ditugu nonahi nahiz eta lantzean behin aipatzen nuen «arantza eta katea» batzuk berriro agertzen diren: Espainiako Historia Academiaren gomendioak... Zergatik utzi zenion kan-

tatzeari Bittor?  
 Soldaduzkara joan behar izan nuen eta amaitzerakoan ez jarraitzea erabaki nuen. Publikoaren aurrean kantatzen eman nituen hiru urte horietan oso argi neukan amateur hutsa nintzela, arrazoi extramusikalagatik onartua nintzela. Eta

amateurismoa ondo dago eta beharrezkoa izan daiteke egoera batzuetan. Jarraitzekotan profesionalizazioarako jauzia egin behar nuen, bestela hobe uztea. Ez nuen nire burua hura egiteko gai ikusten eta irakaskuntzaren bidea hartu nuen.

Amaitzeko Bittor, garai hartako oroimen bereziren bat.  
 Hau nik publikoaren aurrean kantatzen hasi baino apur bat lehenago gertatu zen. Domeka gaba zen, lehenago Ondarroan egonak ginen koadrilakoak

**2000. URTEAN KIROLA EUSKARAZ DATOR**

**AEROBICA**

euskaraz, giro onean...  
 anima zaitetz!

**eman izena!!**

NON: SAN NIKOLAS IKASTOLAN  
 NOIZ: Astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan gaueko 20:30etatik 21:30etara.  
 PREZIOA:  
 • Bazkideentzat: 3 egun 3.000 pta. / 4 egun 4.000 pta.  
 • Ez bazkideentzat: 3 egun 4.000 pta. / 4 egun 5.000 pta.  
 IZENA EMATEKO:  
 Biza Lepoan Euskara Elkartera deitu 94 430 19 32

Hi ez haiz familia honetan agertzen

Hi ez haiz arima gabekoa

Hi ez haiz inoren esklabo

**EZ!!!**

**Haizena Haizelako**



**GAZTETXULO**  
 Euskal Herriko gazteen hilabetekaria

[ aldizkari gazte bat gazteentzako ]

Urriaren 6an kioskoetan

Harrituzarako telefonoa 943 461 883





EZKERRETIK ESQUINERA  
 Abismo. Urta-2000  
 Vieja Trova Santiaguera. Abuz-1996  
 Anselmo. 1994  
 Tatuajea. Urr-1997  
 Barbican Centre, Londres. Mart-2000  
 Misia, Plaza Barria. Abuz-1998  
 Bus geltokia, Algorta. Otsa- 2000

Juan Félix Ruiz—. Algorta 1973

Gaur egun Irudi Taldeko presidentea da Juan Félix. 1992. urtean ekin zion argazkigintzari eta 1996an hasi zen fotografia ikastaroak ematen. Han eta hemen bere lanak saritu dizkiote eta makina bat talde erakusketatan parte hartu du.



“Liburuak dira lore-hautsa adimen batetik bestera eramaten duten erleak” — J. R. Lowell



# Kurkudi

Euskal literaturak badu txoko berririk

Aurreko lanbideaz aspertuta eta irakurzaletasunak bultzatuta, Iñaki Ondarroak liburu-denda bat jartzea erabaki zuen. Asmo horretatik jaio zen Kurkudi, eta, honek, duela aste batzuk ireki zituen bere atea. Berria jakin bezain pronto, hara zuzendu gara Iñakirekin ofizioaren eta afizioaren inguruan hitz egiteko. Liburu-dendan sartu (txoko txikia baina oso beroa) gara, eta apalategietan euskarazko liburuak nagusi.

Testuak: Esti Ezkerra  
Argazkiak: Mikel Martínez

Zer dela eta aukeraketa hori?

Hori zen hasierako ideia. Lehenago Bilboko Alde Zaharrean erropa denda batean lan egiten nuen. Orduan aldatzeko garaia bazela pentsatu nuen. Betidanik izan naiz irakurle amorratua, gehienbat euskaraz irakurtzen dut. Liburu-denda bat jartzeko aukera ikusi nuenean; ez nuen birritan pentsatu. Baina denda ipintzekotan, argi neukan euskarazko liburuak saltzeko izango zela. Gainera, Algortan horrelako dendarik ez zegoen eta euskarazko liburuak eskari handia dago. Euskaldun berri asko daude, eta geroz eta gazte gehiagok ikasten dute D ereduan. Horregatik, Kurkudi-n ume zein gazteei zuzendutako liburu asko dauzkagu. Dena den, gaztelaniaz ere liburuaren bat edo beste badaukat, baina bakarrik best sellerrak edo gehien saltzen direnak: Pérez Reverte, Vargas Llosa, etab.

Zelako harrera egin dio jendeak dendari?

Duela gutxi ireki genuen aren batzuk gerturatu dira. Baten bat, gainera, harrিতa gelditu da gehiena euskarazkoa dela ikustean. Baina oraindik denda ez da oso ezaguna eta pixkanaka joan beharko dugu. Baina jendea, bai, etorri da eta eskaparatean euskarazko liburuak ikustean animatu egiten da. Ni pozik nago.

Orain ezingo duzu aitzakia moduan esan ez duzula lanerako gogorik. Zaltetasa ogibide bihurtzea abantaila ala desbantaila da?

Nire kasuan abantaila. Arropa dendan 15 urte eman nituen eta, horri esker, denda bat zelan eraman behar den ikasi dut. Irakurle ona banaiz, baina kontua zera da, egiten duzuna gustura egiten baduzu, hobeto ateratzen dela. Arropa saltzen gustura nengoen, baina nire asmoa beti izan da liburu-denda bat irekitzea.

Prezioen liberalizazioa dela eta, azkenaldian tirabirak sortu dira denda txikien etorkizuna kolokan jarri dutelako.

Askok esaten didate negozio honetan sartu nahi izan dudala eta agian kalteturik aterako naizela. Gauzak horrela entzunda ez dira batere gozoak, baina aurrera irtengo gara. Gainera, erronkak gustatzen zaizkit. Kurkudi denda txikia da, baina hemen bakarrik nago eta nahi dudana egin dezaket.


Egiazta dezagun esaten duzun bezain irakurle fina zarela. Zein liburu gomendatuko zenieke gure irakurleei?

Liburu asko daude eta zaila da guztien artean aukeratzeko. Nik uste gazteentzako ondo dago Anjel Lertxundiren Lehorreko koaderno. Anjel Lertxundiren edozein gomendatuko nieke. Denok ezagutzen dugu zer-nolako

euskaraz maila duen oriotarrak, baina gazte jendearentzat idazten duenean oso istorio politak asmatzen ditu. Bestetik, oso ona da Saramagoren Lisboako setioaren historia, Ana Urkizaren Desira izoztuak, Lourdes Oñederrak idatzi eta aurten Kritika Saria irabazi duen Eta emakumeak sugeak esan zion gustura irakurtzen da. Txalapartaren debate liburuak ere interesgarriak dira.

Ez zarela larregi busti nahi ikusten dugu, baina esaiguzu zein zure libururik gustukoena, irakurle euskaldun batek irakurri behar duena.

Lertxundiren Otro Pette. Irakurri dudak libururik politena da.




Iñaki Ondarroa. Kurkudi liburu-denda Algortako Juan Bautista Zabala kaleko 8. zenbakian dago

# Idazleak eta irakurleak aurrez-aurre

Kurtsoa hasterekin batera, abian jarri dute Irakurzalearen txokoa. Javi Bilbatuaren gidaritzapean eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak bultzatuta, txoko honek hilero hitzaldi bat antolatzen du idazle eta haren obra baten inguruan.

Idazleak, besteak beste, Harkaitz Cano, Jon Arretxe, Koldo Izagirre eta Jon Alonsoren anekdotak entzuteko aukera izan genuen. Taldea ere nahiko finkatuta gelditu zen eta uneotan 15 lagun inguruk osatzen dute literaturzaleak biltzen dituen txokoa. Idazleak, antolatzaileak nahiz entzuleak bat datoz aurrekoa esperientzia polita izan zela esaterakoan. Hona hemen Argiak antolatutako mahainguru batean Jon Alonsok adierazitakoa: “Nik profesional izan nahi badut, katakunbetan ez naiz ondo ibiliko. Baina erabakitzen badut ez zaidala horrenbeste axola literaturatik bizitzea, oso ederra irudituko zait Getxon hamabost lagunekin hizketan egotea. Azkenean, hori da balio duena, hor egosten dira ideiak. Eutsi diezaiozun horri”.

Oporren ostean indarberrituta bueltatu da txokoa. Aurreko ildoari jarraiki, hitzaldiak hilabetero antolatuko dira, baina Getxoko Kultur Etxean izan beharrean, oraingoan Itxas-Ganek jasoko ditu (Teilagorri enparantzaren ondoan, Karitate kalea, 1.). Aurtengoan Koldo Izagirrek errepikatu du,



Irakurzaleen Txokoa hilabetero, lehenengo asteartean elkartzen da idazleekin berba egiteko. Informazio gehiago: 94 430 19 32, Bizarra Lepoan

baina bere obraren inguruan hitz egin beharrean, Susa argitaletxeak kaleratutako Poesia Kahierak bildumari buruz aritu zen. Azaroaren 7an, berriz, Juan Luis Zabalak bisita egingo dio irakurzalearen txokoari. Zabalak bere azken obra izango du hizpide, kaleratu berria den Agur Euzkadi. Abenduan Jose Morales Belda itzultzailearen txanda izango da. Moralesek erusierazko zenbait obra euskaratu ditu, besteak beste, Maxim Gorkiren Ama, Mikhail Jurievitx Lermontoven Gure garaiko heroia eta Nikolai Gogolen Arima hilak. m

## Merezi dute

Venezuela, iraultza isilaren hitzak  
PAKO ARISTI

Venezuela erraietatik ikusita, halakoxea da Pako Aristik Hegoamerikako herrialde horri buruz dakarkigun kronika. Aristi Mikel Markezekin batera



Venezuelara abiatu zen bertan aste batzuk irakurtzeko asmoarekin. Txalaparta argitaletxearen enkarguz, han bizitakoaren laburpena jaso du Aristik liburuan. obrak ustelkeria kasuak atzean


usteko eta pobrezia baten isla dakarkiguz. Hori guztia, batzuen miresmena eta besteen gorrotoa, baina indiferentziarik sortzen ez duen Chavez presidentearen irudia uneoro present dagoela. Berehala irakurtzen den liburua da, baina pena bat da luzeagoa ez izatea. m

Gezurrak, gezurrak, gezurrak  
IBAN ZALDUA

Geure bizitza gezurren gainean eraikita dago. Gezurrek arautzen dituzte geure eta lagunen nahiz senideen arteko



harremanak, intentzio onez zein txarez esaten diren ala ez aztertzen hasi gabe. Teoria horretaz baliatuko da Iban Zaldúa “Gezurrak, gezurrak, gezurrak” liburua osatzen duten 26 ipuinen mamia harilkatzeko. Laburrak eta irakurterazak dira ipuinak, eta haiekin une gozoa pasatzeko aukera izango du irakurleak. m



ARTEskola

## Gabriel Ramos Uranga

(1939-1995)

Bilbon jaio zen artista hau Uribe Kostan bizi izan zen luzaroan. Bartzelonan aparejadore ikasketak egin zituen, geroago Madrilén San Fernandoko Arte Ederretako eskolan izena eman zuen. 1966an bere bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen Bilboko “Illescas” aretoan.

Geroztik, zenbait hiritan erakusketak burutu zituen: Madril, Donostia, Franckfurt, Colonia, Menorca, Heidelberg... Bere ibilbidean garrantzi handia izan zuen grabatuaren teknikak Cuencan ikasi zituen (1968-1973). Askok eta asko dira Gabrielen lanak abegi egin dituzten museoak, adibidez, Cuenca-ko Arte Abstraktuko Museoa, Bilboko Arte Ederretakoa, Nurenberg-eko Albert Dürerhas Museoa... Lekeition berak egindako freskoak ikus daitezke. Bere lanak hainbat sari jasotu ditu, esaterako, 1982an grabatu eta pinturaren lehenengo Arterder saria, 1986an Gure Arte pintura lehenengo saria...

Egile honen bereizgarri nagusiak anatomiaren menderatze ederra eta grabatua, litografia edo beste teknika grafikoaren erabilpen zuzena dira. 1975ean “Marrazari” litografia tailerra sortuko du.

Orain dela bost urte joan zitaigun, Getxoko kale batek bere izena du.  
GOIAN BEGO.

TESTUA: ALBERTO ZEBALLOS

Gabrielen akuaforte bat.



# Jan & edan

gaizka escudero



villabotas-ekoa

itsaso arana



jolastoki-koa

## Zurrurutuna

I pini, sutan (bajua) lapikoa, oliba olio, kipula ondo txikitua eta berakatz aleak. Aurretik, labean ogi xerrak jarri ondo erre arte. Eginda daudenean, morteroan txikituko ditugu eta ondoren sutan daukagun lapikora botako dugu. Eragin apur bat eta ondoren, bakailu birrindua, Martini txorrotada eder bat eta txorizo-piperrak gehitu. Okela salda apur bat ere bota behar zaio, baina ez badaukagu starluxa eta ur apur batekin konpondu dezakegu arazoa. Hau guztia mantendu sutan 20 minututan. Piperrak eta berakatz aleak baztertuko ditugu eta pasapuretik pasa, emaitza atzera botako dugu lapikora. Kitto.

Plater hau salda moduan har daiteke. Lodiagoa nahi badugu, egiterakoan ur gutxiago botaz lor dezakegu, kasu honetan, zurrurutuna egina dagoenean arrautza pare bat bota dezakegu. m

### 5 lagunentzako osagaiak

olioa, gatza • kipula gorri bi • 6 berekatz ale • 6 txorizo-piper ogia, barra erdia • bakailu xerra bi, txikitua • Martini, baso erdia



## Bizkaiko txakolina

M endeetan zehar Bizkaia mahasti handi bat izan da. Adibidez, Portugalteko sortze aktan honako pribilegioa eman zion Juan I erregeak herriari: kanpoko untziek ezin zuten herrian beste leku batzuetako ardorik deskargatu, behintzat herrian bertan egindako txakolin beste untziratzen ez bazuten.

Bizkaiko Txakolina jatotorrizko izendapena Bakio eta Lekeitioko kosta-mahastiak hartzen ditu: badira Enkarterrietan ere mahastiak, Balmasedan, Güeñesen, Galdamesen, Zallan eta batzuk Orduña aldean. Bodegak, aipatu ditugun inguru hauetan daude.

Batez ere bertokoak diren mahats mota bi erabiltzen dira txakolina egiteko: hodarrabi zuri eta hondarrabi beltza. Oso mahats usaintsuak dira biak. Folle blanche mahats mota ere onartzen du jatorri izendapen honetaz arduratzen den Kontseiluak. Mahats-biltzea udazkenaren hasieran egiten da, azukrea eta garratzasunaren arteko oreka egokia izaten den momentuan.

Ardo hauei dagokionez, ezagunenak zuriak dira. Ardo arinak dira, sikuak eta edateko oso errazak. Euren graduazioa 9,5 eta 11,5 artekoa izaten da. Badira txakolin gorriak, ez da horrenbeste egiten eta ahoan ikutu garratz apurra izaten dute; graduazioa zurien parekoa izaten da. Eta azkenik, txakolin beltzak geratzen zaizkigu, hauek ezezagunenak dira eta oso gutxi produzitzen dira. Hauetan bai, garratzasuna nabaria da.

Ardo honen produkziaren parte txiki bat atzerrira exportatzen da, eta Bartzelonan banatzen da. Bartzelonan banatzen da.



### OHARRA

Ardoaren inguruan zure galderak erantzun dezakegu aurrerantzean Itsasok. Bidali zure galdera UK aldizkarira.

## URIBERTSOAN BARRENA



Hegoak ebaki banizkio, nerea izango zen, ez zuen alde egingo; baina honela ez zen gehiago bertsolaria izango...

eta nik bertsolaria nuen maite!

Bertsolaria udan ez da geldi egoten zalea. Ez horixe! Gainera udan era askotako bertso ekitaldiak izaten dira: jaialdiak, plaza librekoak, bazkariak, eta beste makina bat modalitate. Hona

Eskolako bertsolariek bertsotan egin zuten Getxo Rugby Taldearen urteurren jaietan. Jon Azkargortarekin sartu ziren arren, Jon ez zen lagunarteko melérik irten erantzuteko.

Bertsolari mokofinak Algortako Portu Zaharreko marmitako egunean, Aitor Mendiluzek eta Jon Maiak marmitako itzela jan zuten

Txozna barruko saioa Erromoko jaietako bigarren saioan bertsolariek (Egaña, Peña, Mendiluze eta Amuriza) txozna barrutik kantari behar izan zuten, euriak oholtzako megafonia hondatu baitzuten. Entzuleek gustura entzun zuten saioa, edalontzi sagardoa

Plentziatik Sopolara Algortako bertso eskolak Plentzian egin zuten ikasturte amaierako afaria. Gurea jatetxeok gogoan izango dute euren atarian egin-genuen hiru orduko bertso despedida. Benetako despedida, baina, Sopolako San Pedroetan egin genuen,

Ongi etorri Astrabudua! Astrabudua jai batzordeak bertso saioa antolatu du aurreko lehenengoz. Euriak ekitaldia pittin bat lorrindu bazuen ere, saio polita egin zuten Oihane Enbeitak, Arkaitz Estiballesek eta Fredi Paia.

Neguriko txapela Algortan Neguriko jaietako bertso sariketan Alfredo Paia nagusitu zitzaion Etxahun Lekue eta Arkaitz Estiballesei saio alai eta dibertigarrian.

Bizkaitarrak bizi-bizi Algortako San Inazioetako saioetatik bizkaitarra izan zen jendearen gustukoena: Aritz Lopategi, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Alfredo Paia. Eutsi goiari!

Erandioko heldutasuna Aurtengo San Agustinetako bertso saioan (Jon Maia, Igor Elortza, Aitor Sarriegi eta Alfredo Paia) argi ikusi zen Berbotz Euskara Taldeak egindako lanaren fruitua: Gaur egun Erandio Bizkaiko bertso plaza garrantzitsua da.

Puntako gajjartzailegaiak Algortako Pello Unzurrunzagak eta Sopolako Miren Loizagak oso saio ederrak prestatu zituzten Algortan eta Erromon. Argi utzi zuten bi-biek aurrerantzean eurekin kontatu beharra dagoela gajjartze lanerako.

Txingorpean kantari Getxoko paelladan bertso eskolako kideek saio bizi bezain zoroa egin zuten txingorrada itzeleren azpian.

Udako unibertsitatea Ez gara UEUz ari, baizik eta bertso eskolako talde alternatiboaz, uda osoan zehar martitzen gauetan bertsotan ibili den alproja koadrillaz, alegia.



Paella egunean, Aixerrota 2000

### bertsoAGENDA

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2000 Urriko kanporaketak:

- Urriak 12, Zornotza, 17:30, Zornotza aretoa: Aritz Lopategi, Inigo Gojenola, Joseba Gojenola, Leire Bilbao, Joseba Artza eta Arkaitz Ugartetxea.
- Urriak 22, Aulesti, 17:30, Aulestiko pilotalekuan: Unai Iturriaga, Fredi Paia, Marta Ortiz, Etxahun Lekue, Xabier Enbeita eta Xabier Arriaga «Txiplas».
- Urriak 29, Mallabia, 17:30, Mallabiko pilotalekuan: Igor Elortza, Anertz Muniategi, Eneko Abasolo «Abarkaz», Peru Aranburu, Garikoitz Sarriguarte eta Oihane Enbeita.

Erosketa etxera eroaten dogu!!



### ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:30-21:00  
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:30

dena-ona  
supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

ENEKO



BAR amuriza

**Espacio ZEN**  
Contemporáneo  
**Chi Zen**  
muimendua meditazioaren artea  
Taldeak goizez eta arratsaldez  
Tuturindo 4 (Arrigunaga)  
Alderria (Metroa, Bidezabal)  
Telf: 944 609 802





Txarriboda bat Gatikan 1997ko abenduan

## Aurkezpen

Testua: Akaitze Kamiruaga  
Argazkia: Mikel Martínez

**E**uskal Herriko ohiturak, sineskerak, erritoak... asko dira. Hauek besteak beste herri-erlijioarekin, herri-egutegiagaz, bizitzako ohikunekin, ogibideekin, urte-sasioen joan-etorriagaz, edo eguneroko bizimoduagaz lotuta daude.

Baina ohiturok eta ohikuneok, gizarte tradizionalak azken bilakaera dela eta, gaur eguneko bizimoduan ia ez dute lekurik eta gehienak galtzeko zorian daude, edo era sinbolikoan baino ez dira mantentzen.

“Gauak eta egunak dagoz lehengoak, ohitura zahar guztiak galdu dira”.

Horixe da esatera zahar batek dioena, eta egia da neurri handi baten. Honen arrazoia argia da, antzinako ohiturak nekazaritza, artzaintza eta abelazkuntzarekin lotuta daude eta

gaur eguneko gizartean ogibide hauek beren garrantzia galdu dutenean, eurekaz zerikusia duten erritoak ere murriztu egin dira.

Baina oraindino badira gure artean, ohitura zahar horien aztarnak eta arrastoak, eta zorionez euretako batzuk bizibizirik daude gure inguruetako baserrietan.

Eta atalxo barri honen helburua horixe izango da, usadio zahar horiek plazaratzea eta ahal dugun neurrian berreskuratzea. Horretarako lehenengo eta behin azaletik baino ezpada ere gure herriko ohiturak, sineskerak, erritoak, eta gure aita-amamen eguneroko bizimoduko ekintzak ezagutu egin behar ditugu.

Hasteko, datorren hilean San Martin dela eta danok eza gutzen dugun gai batekin hasi- nekaziritza, artzaintza eta abelazkuntzarekin lotuta daude eta

\* Oharra: irakurleonean artean, baten batek gai zehatzen bat jorratzea nahi izanez gero, eskatzea baino ez dauka, eta hemendik ahal den neurrian egingo dugu bere jakingura asetzeko ahalegina.

Udako bakazinoak eta gero, hementxe gagoz ostabere alkarregaz geure Akabuko Punten. Itzela da zelan pasaten dan denbora, ezta? Konturetu orduko, badeku udegoiena ganean. Arboletako hostoak jausten hasita dagoz, eta laster ikusiko dogu lurre orbelaz beterik. Geuk, hotzak etorri bitartean, Urdulizera egin dogu bisita. Antzonekoako “Etxetxu Barri”ra joan gintzen. Izan be, gauza xelebrea zan han ikusi eta ospatu beharrekoa, eze

Testua: Andoni Llosa  
Argazkia: Mikel Martínez

—Bueno ba, kontaixue apur bet zein ixen dan zuon biximodue, 88 urte eukiteak badeko-ta zer konta...

—Bueno, aitte ixen zan Barrieko eta ama Urdulizko, ama jaio zan Torrebarrin, eta geu Barriken... Nire amak euki euzan 14 urte euren ama hil jakenen, neure amama hil zanen. Zortze nebarreba ixen ziren eta nire aittite alargun lotu zan. Aittitek 38 urte egin euzen Urdulizko Aiantamintun beharren. Zer giau esangotzut haren ganen... herriko mediku bere, eurokaz eukiten euren pupilo...

—Zer da hori “pupilo”, zeri esaten dako “pupilo” ba?

—Baa... norberan etzen egon eta yan ta lo ta dana hantxe egin... pentzinon egon, ezta?

—Ta, Barriken jaiota, noiz etorri zintzen zuok hona Urdulizera ba? —Geu etorri gintzesanen ja zen-

bet urte eukiko genduzen ba... hamabost edo gixiau igual. Giau ez. Ordurik hona, beti Urdulizen. —Ordun, txikerretarik beti Urdulizen, eskolara ta duzti...

—Hasikeran aa eskolara Barrieko ospitalera joaten gintzesan, monjak egoten ziren ta haiekaz monjakaz, eze Barrieko monjak eskole emoten euden. Gero a, Urdulizen San Fermin eskolara joaten gintzezan, hortxe bertan, eskole hor euki gendun ta gero gerran erre i euden. Hortxe egoten gintzen mutilak leku baten eta neskak bestalden. Eta egoten ziren maestre eta maistre, ta bertan bixten ziren. Doña Kontxa maistre... buenoo... harek sarri askotan egiten oskun txatximiske... “letxe” txarra maistrek bai, errespeto itzela eukiten gendun eskolan, ez oingo lez.

—Etxetik paraje ordun... —Bai, paraje. Solotatik joaten

gintzezan... baia ez pentza geu hemetik mobidu ez garenik, e? Geuk asko errekorridu du... leku askotan ibilte gaiz gu. Ni Madriletik etorri nintzen 21 urte-az ezkontzen, Madrilen krieda egon-ta. Ta nire aizte bere ibilte dao...

—(Maria Dolores) Bai, ni hamar urte egon nintzen krieda Jose Antonio Agirre(g)az, eta gero zazpi urte esilion, Biarritzen hasikeran, hortik gero Belgikara eta han egin gendun hainbeste urte, xato batean. Enee... zenbet gauze ikusite gaizen gu, zenbet gauze! Geure aittek be... kanpora joan behar ixen beharren...

—Aitte kanpora joan zan...

—Ba, aitte Kubara joan zan behar egiten. Dende eta panaderi euki euren... geure aitte solteruten ja han egoneko ixen zan, ze tio bat han euki eun, establezimendu baten, eta erretira zanen geure aitteri abisa ieutzen hara joateko. Ama ez zan ixen partidaria joan daitten, eh? Baia... ordun aitte Kubara joan zan, seme bikaz, zaharrenakaz, eta gero bieja bat egin eun atzera hona, bisitan. Enee, akordaten naz... geu txiki- txikiak gintzela joan zan, ta ordun han aldeako etzen bixi gintzesan eta solok-eta eukiten genduzen

eta solotatik itxoso ikusten zan... barkuk ikusten ziren itxoson, eta esaten gendun “han do(a) gure aitte, han do(a) gure aitte”, ume koitteduk hori ilusino eukiten gendun. Horregaittik ba, han Kuban fameli deku guk, lobak eta.

—Eta zuok ez zare joan inoz hara Kubara bisitan?

—Ez, ez. Joan behar gendun, joan behar gendun. Baia ordun ez zan egon holango posibiliterik, gero be itxoso luze da eta bildurre eukiten gendun joateko, gaur abioian be biaje luze da ta atara kontuk orduko denporatan barkun.

—Hainbet gauze ikusite zagozela esan dozue... gerra denporan be gorrik pasa behar izan zenduezan, ezta?

—Ez gendun pasako ba, ez gendun pasako! Hemen, barrioko danak negarrez, akaba daiten gerre, eta handik sue gauen, kea... enee... sikeran a akaba zan...

—Bai, eta gerre akaba ta ostein, zer?

—Nik, fabriken egin nendun behar, hemen aa “Tornilleria La Vasca”n, Erandion. Eze ordun denporan Urdulizen ez zan egon ondino fabrikarik... “Mecanica La Peña” beluau egin zan. Jo,



Maria Dolores eta Maria Luisa euren etxeko atarian. Behean, Lehenengo Jaunartze egunean

dozuezala gaur? Ezin dot sinestu...  
laguntzinoRAKO BERBAK

### laguntzinoRAKO BERBAK

Bikotxa: bikia, bizkia

Erre i euden: erre egin zuten

Bixten: bizitzen

Txatximiske: txatximurke edo txatxamarka egin, imurtzi egin

Paraje: hurbil

Aizte: ahizpa

Xato: gaztelu (frantsesez, “chateau”)

Kanpora joan behar ixen beharren: kanpora joan behar izan zuen lanera Partidaria joan daitten: aldekoa joan dadin

Beluau: beluago, beranduago

Aren: arean, apur bat

Erontzi: erantzi, arropa kendu

makina bateri emon dotzo jaten “Mecanica”k, fabrike elegante ixen zan, nahiko diru emon eun. —Bueno, behar asko egin bai, baia jaietan joateko astirik be eukiko zenduen...

—Aren bai, aren bai. Ez pentza gero, gaurko lez kotxetan-eta joaten gintzenik jaietara, oinez baino! Beti oinez joaten gintzen, Bilbora ixen arren, sarritan Unbetik gora oinez, Mungire ta Gatikera jaietan oinez, txistu josten eta jantzan josten gintzen erromerire, hantxe egon ta gero ostabere jantzan oinez etzera... baia gaueko hamabietarako gehienez etzen egoten gintzezan.

—Belu egin daku eta gaurkoz akabateko, Maria Luisa eta Maria Dolores. Egi da 88 urte egin



# 27.700 euskaldun zure

Lan mundua euskalduntzeko duela hamar urte sortu zen Artez Kooperatibak Euskaldunon Gida kaleratu berri du. Ez da euskaraz idatzitako gida arrunta: bertan azaltzen diren guztiak euskaldunak dira. Helburua: euskarazko sareak sortzea. Helbideak eta telefonoak ezezik, Euskal Herri osoko posta kodeak, faxak, helbide elektronikoak.... aurkitu daitezke gida hone-

**B**este arlo batzuetan (hezkuntza, kultura...) ez bezala, lan munduan euskaraz ezer gutxi eginda zegoela ikusirik, Artez enpresa abian

ren guztiak euskaldunak direla. Ez da gida komertzial hutsa; bertan azaltzeagatik ez da ordaindu behar. Helburua zerbitzua euskaraz eskaintzen duten euskaldun guztiak bertan azaltzea da. Baina ez hori ba-

onako posta kodea?). Informazio asko, oparoa topa dezakegu bertan baina hau hala izateko pertsona bat ibili da urtebetez lanean datuak biltzen. Laurehun informatzaile baino gehiago lagundu dute datu bilte lan honetan.

**GIDA SAREAN**  
Prestaketa lanetan badabiltza ere, informazio hau guztia azaroan internet sarean kontsultatu ahal izango da [www.euskaldunongida.net](http://www.euskaldunongida.net) helbide elektronikoan. Abaintailak asko dira. Bilaketa lanak askoz errazagoak izango dira, adibidez Getxon dentista bat behar badugu, ba dentistak eta Getxo sartuta, segituan jakingo dugu nora jo. Bestalde, informazio eguneratu ahal izango




Patxi Alaña. ARTEZ kooperatibako partaidea

#### ZER DAGO GIDA HONETAN?

- 27.700 euskaldun
- 825 jarduera
- 400 herri
- 2.100 helbide elektroniko
- Internetekin lotura zuzena
- Euskal Herri osoko posta kodeak

Argitaratzailea: Artez Koop. E.  
Luzarra 10, 2. /48014 DEUSTU  
T.: 944 480 000 T.: 944 757 229  
[posta@artez.net](mailto:posta@artez.net)  
Euskaldunon Gida Elektronikoak:  
[www.euskaldunongida.net](http://www.euskaldunongida.net)



#### KOMUNIKAZIOA

jartzea erabaki zuten Patxi Alaña eta lagun batek duela hamar urte. Helburu argia zuten: arlo laboralaren euskalduntzeko lan egin. Gaur egun, Artez kooperatiba bat da eta hamar lagunek behar egiten dute bertan. Lau arlo nagusi jorratzen dituzte: enpresak euskalduntzeko aholkularitza lana (orain esperientzia pilotoa egiten ari dira BBKko hamar bulegotan), euskarazko papergintza (inprimakiak, klasifikadoreak, agendak, postalak...), itzulpengitza eta lehen aipatu dugun Euskaldunon Gida.

**INFORMAZIO OPAROA**  
Orain arte Euskaldunon Gidak hiru edizio ezagutu ditu. Lehenengoak 6.000 helbide zekartzan, azken honetan berriz, 27.700 euskaldunon helbideak aurkitu ditzakegu. Horixe baita gida honen ezaugarriarik nabarmenena, azaltzen di-

#### AITORMENAK

# Nerea Onaindia

“Futbolak eman didan guztia onerako izan da”

Testua: Esti Ezkerra  
Argazkia: Mikel Martinez

**H**amabost urte daramatza bai loiar kolpeak ematen eta ez die zer inbidiatu telebistan ateratzen diren futbol jokalariei. Sondika taldean ibili zen lehenengo; orain, berriz, Leioan, eta merezi duten errekonozimendua lortu arte, borrokan jarraitzeko prest dago.

Futboleko jokatu nahi zenuela erabaki eta zer esan zizuten etxean?

Ez zuten arrarotzat hartu, lehenago (8-9 urterekin) futbora jokatu nuelako. Besterik ez zegoenez, ikastolako beste neska bat eta biok mutilekin jokatzen hasi ginen. Familian ondo hartu zuten. Agian hasieran ez zuten ulertzen entrenamenduetara joan behar genuela eguraldi txarra egiten bazuen ere. Baina poliki-poliki ohituz joan ziren, eta, debekatu beharrean, animatu egiten ninduten.

Hartutako erabakiaz damutu al zara inoiz?

Ez. Kirola benetan maite dut, ez bakarrik futbola. Futbolak eman didan guztia onerako izan da. Besterik, ni beti izan naiz nahiko disziplinatua eta, horregatik, entrenamenduen dinamika gustura hartu izan dut.

Kirol bera izan arren, alde handiak daude nesken eta mutilen futbolaren artean.

Mutilen egoera askoz hobea da, baina ulertzekoa da orain arte neska gutxi jokatu dutelako. Futbola mutilekin erlazioan izan da beti, eta guk jokatzen urte asko daramatzagun arren, ez dugu dena bere-

halakoan lortuko. Haiek bezala entrenamenduetara joaten jarraitu behar dugu, nahiz eta dirurik kobratu ez, kirola seriotasunez hartu, gogor lan eginez soilik lortuko baitugu jendearen eta komunikabideen arreta erakartzea.

Ohiko topikoak ere sarritan entzungo zenituen, ezta?

Jendea nahiko erratuta dago. Pixkanaka-pixkanaka iritziak aldatuz doaz, baina ezin da konparatu nesken futbola mutilenarekin. Egia da nesken futbola ez dela hain indartsua, baina baditu alde onak ere. Adibidez, askoz teknikoagoa da.

Entrenatzaileak eta arbitroak normalean gizonetakoak izaten dira. Arazorik izaten al duzue beraiekin?

Badaude entrenatzaile diren neskek, baina gutxi dira. Baina nahiz eta gehienak mutilak izan, ez dugu arazorik. Haiek futbolari moduan tratatzen gaituzte. Selektzioan, adina dela eta, alarma piztu da.

Penagarria da, ez baitut uste kirola egiteko adinari begiratu behar zaionik. Normalean, gainera, zenbat eta urte gehiago eduki, esperientzia ere handiagoa



“Nire kasuan Espainiarekin ez nuela jokatu nahi erabaki nuen nire herria ez delako, eta badakit horrek ate asko itxi dizkidala”

da. Nire kasuan Espainiarekin ez nuela jokatu nahi erabaki nuen nire herria ez delako, eta badakit horrek ate asko itxi dizkidala. Euskadikoarekin, berriz, behin baino gehiagotan jokatu dut eta oso pozik gainera, baina adinagatik kanpoan utzi naute. Dena den, ez dut amore emango. Ez dakit jokalarari moduan iritzi aldatuko duten,

baina hala izanez gero, ni prest egongo naiz neure herria ordezkatzeko.

Egoera ezagututa, profesionalizazioaz hitz egiten has gaitzke?

Gai hori nahiko astiro doa. Estatuan profesionalak diren talde bi baino ez daude eta nik uste denborarekin hona ere helduko dela. 30 urte ditut eta ez dakit hori bizitzea tokatuko zaidan. Baina oraindik

jokatzen jarraitzeko asmoa daukat, eta behin erretiratu, taldeari laguntzen jarraituko dut.

Zu irakasle zara. Zein gomendio emango zenioke zeure ikasle den eta futbolari izan nahi duen neskatari bati?

Gustatzen bazaio aurrera atera behar dela. Gaur egun, eskola gehienetan futbol taldeetan parte hartzeko aukera dute. Baina

# euskara ikasteko dirulaguntzak

**LEIOAKO UDALEKO EUSKARAREN ERAKUNDEAK**  
euskara ikasteko dirulaguntzak eskaintzen ditu leioztarrentzat.  
Eskabideak aurkezteko epea: 2000ko urriaren 23tik 31ra.



argibideak:

Euskara Zerbitzua. Elexalde auzoa z/g  
94 400 80 44 e-posta: [euskarazerbitzua@leioa.net](mailto:euskarazerbitzua@leioa.net).







# ATEA ZABALIK

## 1. ATALA

\* Abisua:fotonobela hau fikzio hutsa da

18

### ALDI BEREAN BESTE LEKU BATEAN

Baina Consuelo, laztana, honek guztiak azalpen bat dauka, faborez ez aldegin, ez da zuk pentsatzen duzuna!



Azkenean joan da!!



Zer uste duzu inozoa naizela? Zer egiten dute nire ahizparen kulero gorriek zure maletan? Kabroia halakoa! Utzi azalpenak epailearentzat! Laster izango duzu nire abokatuaren berri!



Hau zortea! Nire salbazioa!



Hau sukaldia da, berri-berria...

Eta hau logela bat...



Eta hau beste bat, trasto zahar batzuekin baina...



Eta hau...

### PLANO ZEHATZA



Eta hau, eta hau... hau nire komunak kontxo, Begirune apur bat! Ez al duzue ikusten neure gauzetan nabilela? Eta, gainera, nortzuk zarete zuok? Zer egiten duzue nire etxean?

Horixe bera galdetzeko izan naiz? Zer demontre egiten duzu hemen? Nor arraio zara zu, ba?



Baina hau nondik aterata da?

...edo okupa zikin horrek nire etxetik aldeginen du edo oraintxe bertan Ertzaintzari deituko diot!



Okupa ni? Zikina ni? Ni Mikel Maria Landanaiz.

Bai, bai, Nerea! Nerea ere nahiko zabala da, baina, utzi xehetasunak gerorako. Zure aitarekin hitz eginda nago eta dena OK dago. Orain premiazko beste arazo batzuk dauzagu...

Ba, ni Nerea Azpitarte Zabala naiz, Donostiakoa. Atea zabalik zegoen eta sartu naiz... Aitatzok hona bidali nau unibertsitatean hasi behar detelako eta Gipuzkoan ez degenez diseinu grafiko fakultaterikan, ba horregatio...



### GIZON HONEK ARAZO BAT DAUKA




Eskerrak soldatapeko hiltzaile horiek ez nautela ikusi, bestela nire burua UK-ko eskeletan ikusiko dut!

Zeozer egin behar dut, azkar, nonbaiten ezkatatu behar dut!



Hau zortea! Nire salbazioa!



Kaixo, Consuelo Adarreta naiz. Kartela irakurri dut, jakin nahi nuke niretzat gelarik ba ote duzun?

Bai, andrea, jakina. Argi dago gela bat behar duzuna! Apustua egingo nuke zure senarra zure ahiztarekin behin baino gehiagotan oheratu dela.

Erruloengatik. Baina lasai, Consuelo, sosegua topatuko duzu hemen, zure etxea balitz legez. Jakina errenta hilabetero puntual ordaintzen badidazu.

Nire senar kabroi hori... Gainera nire ahizpagaz... Oka egiteko gogoa sartzen zait pentsatzen dudan bakoitzean! Baina..., zelan asmatu duzu?



Barkatu, atea zabalik topatu dut... Arturo Zorrozabal naiz, CLko sukurtsal bateko zuzendaria. Leku aldaketa baten ondorioz Getxora bidali naute eta gela bat behar dut.

No problem! Hau Consuelo da, gela baten bila etorri da bera ere. Baina kontratua sinatu aurretik etxea ikusi beharko duzue, ezta?



Lasaitu Klaudio. Ez dago Ertzaintzari deitu beharrik! Arazorik egon ez dadin, neuk ordainduko dut gustura nire lagun berriaren lehenengo errenta.



Eskerrik asko tronko! Nik uste nuen bankari guztiak zeken hutsak zirela, baina antza, batzuk ez zarete horrenbestekoak.

601,01 euro x 4 txotxolo = 2.404,04 euro hilabetero!!!

Eskerrik asko loregatik! Mikel, ezta? Hortxe dituzu, Klaudio, 100.000 pta, hau da, 601,01 euro.





Arazoa konponduta, ezta? Baina orain zer, bizkaitarrek ez al dezute afaltzen?

Antza, ez zuok giputxiek beste. Baina lasai, seguru sukaldean zeozer badagoela, bilatu dezagun!



Hemen hautsa baino ez dago, honek ez du kotoiaren froga pasatzen; garbi dago!



Zer degu hemen? Ez du jatekoa ematen, hala ere... forma interesgarria du.



Hemen sei zerbeza baino ez dagoz!



Ikutu ere ez, horiek nireak dira-eta!!!



Hara okupa eskuzabala! Beste rik ezean barau egin beharko dugu!



Lasai, lagunok, ideia bat bururatu zait. Elkarregaz biziko gara aurrerantzean, eta hau ospatu behar da! Pizza bat eskatuko dut nire euskalphone berritik. Eta jakina, neuk ordainduko dut!



PITZZAREN ZAIN DAUDE GUZTIAK

Ba, hau bai txoltoa Getxon pisu bat hutsik izatea!!!

Ez du negozio txarra ematen

Hauekin bizi behar!! eta, gainera, Nerea pija hori "La oreja de Van Gogh"en kanta bat abesten!!

Senar maitea...

La, la, la...



2.404,04 euro = ?

...akutuko zaitut!!!!

HIIP! Kaka zaharra HIIP! Zerbezak amaitu dira! HIIP! Behintzat pija hori isildu da, HIIP!

Aitatxo! Goseak amorratzen nagon!

Telepitzero mada-rikatu horrek, dato-rranean, (baldin bator) jakingo nor den Arturo Zorro-zabal!!!!



Atea zabalik zegoen... barkatu deitu barik sartu izana. Gabon. Gose izango zarete honez gero, ezta? Apur bat atzeratu naiz... Kontua da enkargua jaso dudala Madriletik... Pizza bat eskatu dit emakumezko batek... Ana... barkatu ezin dut bere izena esan!! Eta bada-kizue... telepizeroek propina lortzeko lan extrak egin behar izaten ditugu... en fin... uste dut Joxemaik inoiz jakiten badu... ba, ez zaiola gustatuko... baina tira! Bipizza gogorra da!!

### NOR DA NOR?



Baresi (Nerea)



Xabier (Arturo)



Amaia (Consuelo)



Erri (Klaudio)



Jabi (Mikel)



Jokin (senarra)


SEGITUKO DU...

## bere kanten bilduma



bittor egurrola 1968/1970

edizio berezi eta mugatua!



### lastersalgai

UK Aldizkaria, Amezi 6, 4. sol., 5. bulegoa ALGORTA  
Kurkudi liburudenda, J. B. Zabala 8 ALGORTA  
Egunkariak, Algortako etorb. 78 ALGORTA  
Goizean, Orduña men. 1 GETXO  
Tellexe 13, ALGORTA



orain dela 30 urteko bere zazpi kanta eta aurten grabatutako beste bat

argitaratzailea: UK Uribe Kostako Aldizkaria